Donostia-Gipuzkoa

Lurralde txikia filmatze handietarako

SAN SEBASTIÁN GIPUZKOA FILM COMMISSION

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico

donostiasustapena
fomentosansebastián

Ikus-entzunezko habitat paregabea

Tokiko profesionalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearen balio-kate osoa izan dezakezu: ideia, ekoizpena, postprodukzioa eta banaketa. Ikus-entzunezko gure industrian, **kalitate bikaineko profesionalak ditugu**, horrela bermatzen dituzten estatuko eta nazioarteko sari ezberdinak irabazi dituztenak.

30 Goya sari baino gehiago

Oscarretarako hainbat izendapen

Pizgarri fiskalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearentzako laguntza ez da hitz bakar batzuetan geratzen, baizik eta pizgarri fiskal garrantzitsuak daude. Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko ekoizpenen inbertsioek **%30eko** dedukzioa lortzen dute Sozietateen gaineko Zergan eta **%40** obra euskaraz filmatua bada. Lurraldean filmaturiko atzerritar ekoizpenek, berriz, Euskadin egindako gastuen gaineko **%25eko** dedukzioa lortuko dute. Gainera, pizgarri horiei udal-tasen exentzioa gehi dakieke.

%30eko dedukzioa Sozietateen gaineko Zergan eta %40koa obra euskaraz filmatua bada

Kokapenengatik

Lurralde txikia izanik, Donostia-Gipuzkoan **izaera desberdineko kokapenak** ditugu; modu horretan, eszenatoki ezberdinetan filmatu daiteke ibilbide luzeak egin beharrik izan gabe. Askotariko paisaiak: kosta, mendia, hiriak, landa-eremua,... filmatzeko behar duzun guztia Donostia-Gipuzkoan aurkituko duzu.

Bizi-kalitatearengatik

Unibertsitate-ikasketak dituzten gazte asko, batez besteko per capita errenta altua eta **langabezia-tasa baxua**; gure lurraldeko bizi-kalitatearen adierazle nabariak dira. Eta ezin dira ahaztu bestelako balio ukaezinak: **kultura**, **gastronomia** eta **kirola**, gure gizartean oso errotuta daudenak.

Aniztasuna
kokapenetan

Esperientzia



El internado (Globomedia)

Rifkin's Festival (Woody Allen)

18 urteko ibilbidea
1700 filmatze
70 film luze

baino gehiago

Juego de Tronos telesailaren lurraldea

Saria:
Location Managers Guild International Awards

Filmografia

Ilargi Guztiak / 2020
Goya sarietarako hamabost nominazio



Akelarre / 2019
Bost Goya sari

Patria / 2019
Hiru Feroz sari, eta Forqué sari bat

La trinchera infinita / 2018
Bi Goya sari eta Oscar sarietarako hautagaia

Handia / 2017
Hamar Goya sari eta hamahiru nominazio

Loreak / 2014
Oscarretarako hautagaia, ingelesa ez den beste hizkuntza batean egindako pelikula onena bezala

8 apellidos vascos / 2014
Espainian diru gehien bildu duen espainiar pelikula

La herida / 2013
Bi Goya sari eta Feroz sari bat

Ingurune segurua

eta lagunkoia

Donostia-Gipuzkoa Europako kokapen pribilegiatuetariko bat da. Hainbat herrialdetatik gertu aurkitzen da; paisaia-aniztasuna du; esperientzia 1.700 filmatze eta grabaketa baino gehiagorekin; tokiko industria eta profesionalak nabarmenak dira; bizi-kalitate, segurtasun, enplegu, hezkuntza eta kualifikazio mailan estandarrak ditu; eta lurralde abegitsu eta atseginean eraikitzen da.



Zine Jaialdiak

Lurraldean ikus-entzunezko sektorearen erreferente bilakatzen duten jaialdi ezberdinak egiten dira:

- Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.
- Dock of The Bay Jaialdia.
- Giza Eskubideen Jaialdia.
- Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Donostiako Astea.

Gastronomia

11 jatetxeren artean 18 michelin izar banatzen dira; ondorioz, Donostia-Gipuzkoa metro karratuko izar gehien dituen lurraldea da munduan.

Harremana

Arretarako telefonoa
+34 943 48 28 00

Harremanetarako mail-a
filmcommission@donostia.eus

Egoitza
San Roque Kalea, 120
20009 Donostia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico
donostiasustapena
fomentosansebastián